



## BALIO PROPOSAMENA

Enpresa honen sortzaileak merkatuko produktu eta zerbitzu hobe bat eskaintzeko elkartu gara, eta denak batera merkatuko sektore garrantzitsu baten alde txarrak hobetu ditugu. Funeraria hobe bat sortzea erabaki dugu, eta enpresa hobetu honen bidez animaliei eta erlijio desberdineko pertsoneri merezi duten atsedena emango diegu. Gainera, bezeroei urnen eta hilkutxen diseinu paregabe bat eskeintzen dizkiegu.

Enpresa honek hilkutxak eta urnak ekoizten ditu pertsonentzako eta animalientzako, gainera, gure produktuen diseinua bezeroak aukeratzeko zerbitzua aurkezten diegu. Baina, gure enpresak eskeintzen duen zerbitzu hoberena da erlijio guztietako beharrei aurre egiteko prest gaudela. Urnak eta hilkutxak material biodegradablez eginak daude, gehienak egurra eta lokatzez.

Enpresa honetan, gure produktuak material biodegradablez eginak daude, material hori erabiltzea erabaki dugu, ingurumenaren onerako; horregatik pentsatu dugu enpresa hau sortzea. Baita ere, pertson eta animaliei garrantzi berbera ematea.

Gure sektoreko beste enpresak konpetentzia egiten digu. Horietan oinarrituta, prezio egokienak eta zerbitzu zoragarriak eskaintzen saiatuko gara, gure bezeroek amets egiten duten hileta edukitzeko.

Gure enpresaren garapen iraunkorreko helburua "Klima babesteko ekintza" izango da. Geuk produktu kimiko batzuk erabiltzen ditugu, orduan, horiek murrizten saiatuko gara beste produktu osasuntsuagoak bilatuz.